

Every language is ours, if ours truly belongs to us.

Hizkuntza guztiak gureak dira gure hizkuntza geurea bada.

AINTZANE DIAZ ALDASORO
Erandio



«Euskara maitia,
izan direnak izan
direla, eskutik
goaz bidean»

Erandioko Fano auzoko alaba naiz. Gezurra dirudi, baina, nahiz eta bertakoa izan, euskaldun berria naiz. Amaren familia euskaldun zaharra da. Hori dela-eta, nire amak txikitan bazekien. Hala ere, ama gaixoak ezin izan dit euskara transmititu, ahaztu egin zitzaiolako; gerra garaikoa da-eta bera.

Nik betidanik euskara maitatu izan dut, beraz, txiki-txikitatik euskara ez jakiteak amorrua eman dit; gure hizkuntza izanik... Bai, horixe! Hala izan da. Urteak pasa ahala, seme-alabak izan ditut. Geroztik, burua euskaltegian gero eta hurbilago ikusi dut haiekin hitz egin nezan. Horregatik, duela hamar urte inguru, Leioako AEK-ko euskaltegian gogoz eta ilusioz ikasten hasi nintzen. Pare bat urte egon eta gero, Bilboko euskaltegi batzuetan egon naiz. Horrez gain, hainbat barnetegitan ere izan naiz.

Gaur egun, berbalagun bi taldetara joaten naiz. Nabaria denez, oso murgilduta nago euskararen munduan. Gainera, hori gutxi balitz, euskaraz gozatzen jarraitzen dut.

¡Os animo a todos/as a aprender nuestro idioma gozando del mismo!
Anima zaitetze! ◀

IÑAKI VIDAL MONDEJAR
Bartzelona/Getxo



«Lagun horiek ez
dakitena da haiek
egin nautela
euskaldun»

Bost urte nituela, aitaren lanbideak behartuta, Algortatik Bartzelona aldera joan ginen familiako guztiak. Ez nintzen txarto bizi katalanezko oihartzunen artean; baina hazitakoan, jakin-mina edo herrimina dela eta, hasi nintzen gure hizkuntza ezagutzen. 29 urterekin jaioterrira bueltatu nintzen.

Euskalduntzearen hasiera topatu behar badut, guraso erdaldunei Katalunian ikasitako berba eta abesti zatietan egon liteke... Gaur esan dezaket euskalduna naizela, makinatxo bat euskaldunek euskalduntzat hartu nautelako. Azken urteotan ezagutu ditudan lagun horiek beharbada ez dakitena da haiekek egin nautela euskaldun; bakoitzak bere erara, zer edo zer emanez. Bartzelonako Euskal Etxekoek hizkuntzarekin jolasteko gogo. Getxoko euskaltegieta-ko irakasle batzuek haien prestasuna eta pazientzia. Berbalagun-taldeko hiztun bikainen batek begirunea eta denbora; beste hiztun ez horren bikain batzuek naturaltasuna eta kemenen. Baserriren bateko aitita-amamek herri-berbaeraren bizitasun eta aberastasunaren berri... Gainera, haietako askok maitasun eta bizipoz itzelak ere eman dizkidate. Euskalduna izateak ez duela ezertarako balio esan didanik ere egon da, baina ez daukat astirik horretaz idazteko, zorionez; orain pentsatu behar dut zelan itzuli emandako guztia. Euskaraz, jakina. ◀

JON SINDREU LARRAÑAGA
Londres/Bartzelona



«Saiatzen ari
naiz Londresetik
berreskuratzen,
bizitzen...»

Outside Bethnal Green tube station, the auxiliary verbs of nor-nori-nork don't sound any easier. No matter how much I try to memorise them on my way to the Euskal Etxea in London, they fade away faster than I can repeat them in my head. And yet, when my Basque teacher utters words I haven't heard in 15 years, I somehow understand.

És una experiència difícil de descriure, la de sentir els mots d'una llengua materna oblidada. Des que vaig néixer, ma mare em parlava en euskera i el pare ho feia en català. Si algú es pregunta si realment existeix el bilingüisme perfecte, jo amb 3 anys n'era testimoni. Vivint a Barcelona tota la vida, la tragèdia va ser esberlar la ficció que ma mare no parlava perfectament el català.

Hamar urte nituen konturatu nintzenez euskara ia galdua nuela. Nire amaren lagunak, Pilik, Bilbotik deitu zuen eta nik ezin izan nuen euskaraz ondo erantzun. Orain 27 urte ditut eta saiatzen ari naiz Londresetik hizkuntza berreskuratzen, bizitzen, sentitzen... Euskaraz hitz egitea niretzat oraindik zaila da, baina hitzak nire buruan eta nire bihotzean beti ezagunak egiten zaizkit. Izugarritzko esperientzia izaten ari da. ◀

JOSE RAMON ONANDIA LONGARTE
Getxo



«Euskara ikasten
eskarmantua,
eta gogoz egiten
ditudan ekintzak»

Duela urte batzuk, 62 urterekin eta erretiroa hartuta, astia sobera nuenez, aspaldi gogoan nuen euskara ikasteari berriro ekin nion. Lauaxeta AEK euskaltegian egin nituen aurreneko urratsak, gero J.A. Agirren; egun, bertoko mintza praktika taldean nabil; udan astebetean ematen ditut barnetegian. Euskara ikasteko modu egokiena, euskara eguneroko bizitzan barnatzean datza. Hori lortzeko, besteak beste, hileroko euskaraz eleberririk irakurtzeko ohitura dut, baita noizik behin artikuluren bat idazten saiatu ere; baina garrantzitsuena, nire ustez, mintzapraktika da. Euskaltegian mintzapraktika talde bi ditugu; euskaldun berriak zein zaharrak daude, eta guztiok elkarrekin hizketan aritzen gara, azterketarik gabe, presiorik gabe, lagun berriak eginez, edo zelako gairi buruz mintzatzen; giro ederrean. Berbalagun ekimenean ere parte hartu ohi dut; Egizuren beste ekintzetan ere bai. Hori gutxi balitz, Donostiako Udalak antolatutako Mintzane.net programaren parte-hartzailea naiz hasieratik. Astero hiru pertsonarekin euskaraz hizketan aritzen naiz, Skype-ren bidez, ordubetez; etxetik irten gabe, munduko edozein tokitako euskara zaleekin. Ez dakit euskara asko edo gutxi ikasi dudana, baina saiatzen eta saiatuko naiz euskaraz bizitzen eta euskaraz erosotasunez jarduten, hori baita nire helburua. ◀